

Abarak

MIKEL GARCIA

Apokalipsia pizza eta garagardo artean

ZEIN UNETAN hasiko zinateke, heriotza usaineko bunker itogarrian giltzapetuta, erotzen? Zenbat iraungo zenuke, hasi arte biziraupenaren izenean albokoa zanpatzen, lagun-etsaia torturatzen, gizatasuna galtzen? Berdin dio ama prestu, suhiltzaile edo abokatu zaren zure egunerokoa, lurpeko bizilekuan sen primarioena gailentzen da, muturreko egoeran barru-barruko izaerak egiten du eztanda. Eta beldurgarria da emaitza. Beldurgarria delako *The Divide*, agonikoa, hertsia. Baina lehenbizi girotu dezagun filma bere ingurumarian, Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astean eskaini baitute pelikula, eta berezia, oso berezia da Donostian egiten den zinemaldi hau.

Izuak eta algarak bikote ezin hobea osatzen dute Beldurrezko Astean: hasieratik festa nagusitu da Antzoki Zaharrean, trufa eta dibertsioa. Poltsa bete litxarrereri eseri da butaka-kidea eta eskutan pizza bat duela (!) iritsi da atzekoa. Garagardo katxiak barra-barra aretoan. Armiarma-sarez eta eskeleto irudiz atondu dute antzokia, baina gutxi batzuk baino ez dira ausartu mozorrotuta, aurpegi margotuarrekin edo katana bizkarrean dutela agertzera. Filmak iraun bitartean mugikorrek piztuta izatea ez dago debeketuta, ezta pantaila handiarekin eta gainerako ikusleekin interaktuatzea ere; areago, kasik nahitaezko baldintza da, iluntasunaren babesean eta pelikularentzako arintzeko komentario umoretsuak ozen jaurtitzea eta hilketak bibaka hartzea –zenbat eta bortitzagoa heriotza, orduan eta handiagoa aztoramena–.

Aperitifa *Paths of Hate* film laburra izan da, bideojoko estetikadun basakeria odoltsua. Eta jarraian, Xavier Gens-en pelikula: bidaia eromen esperpentikoenera, gainbehera erabatekora. Benetako ikara sortzen daki zuzendari frantziarrak, susto

efektisten beharrik gabe, triapak eta burmuinak barreiatuta erakutsi barik, baina odolari, biolentziari eta gizakion alderdi ankerrenari muzin egin gabe. Lanak ondo irudikatzen ditu pertsonaia bakoitza eta egoerak behartuta jasaten duten eraldaketa, onen eta gaiztoen, onaren eta gaizkiaren mugak lausotuz. Etorkizun ezezagunerantz jausten diren protagonisten bilakaera psikologiko eta fisikoak atezuan mantentzen du ikuslea, eta geroz eta handiagoa da estutasuna, zirrara.

Gustatu ez zaidana, gizatalde estatubatuarra bunnerrera eramaten duen arrazoa: iparkorearrena dirudien eraso nuklearra; besterik ez genuen behar potentzia anglosaxoiaren nazioarteko politika onetsi eta segurtasunaren paranoia areagotzeko. New York hiriarren irudi suntsitu-apokaliptikoaren aurrean, “hau da Zapaterok utzi digun herentzia” entzun da aretoan, barre artean. Txantxak, izua, eta erritmo biziko amaiera. Gorputzaldi arraroarekin eta sentsazio indartsuekin atera naiz antzokitik.



The Divide. Zuzendaria: Xavier Gens. Gidoilariak: Karl Mueller, Eron Sheean. Aktoreak: Lauren German, Michael Biehn, Milo Ventimiglia, Rosanna Arquette, Courtney B. Vance, Michael Eklund, Ivan Gonzales. 2011, AEB, Kanada, Alemania. 122 min.

ZIO

● ZIENTZIA
● IRAKURLE
● ORORENTZAT



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

gure
artean
euskaraz

Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

BFA
DFB

Bizkaiko Foru Aldundia
Deputación Foral de Bizkaia

BIZKAIA
BIZIA